

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko iraila

Euskal AEko landetxeen eta apartamentu turistikoen okupazioa bikoiztu egin da 2021eko irailean, 2020ko hil berarekin alderatuta

Udan (uztaila, abuztua eta iraila), okupazioak % 50 baino gehiago egin du gora, 2020ko udarekin alderatuta, bi establezimendu mota horietan

Euskal AEko landetxeetan, irailean, 15.399 sarrera eta 40.321 ostatu-gau izan dira, guztira; alegia, aurreko urteko hil beraren aldean, % 104,7ko eta % 102,5eko gorakada egon da, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko iraila

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	2020/09	plazaka		gelaka	
							2021/09	p.p.*	2021/09	p.p.*
EUSKAL AE	15.399	104,7	40.321	102,5	2,62	2,65	29,8	13,9	33,9	14,8
Estatukoak	12.847	84,2	34.669	87,0	2,70	2,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.552	366,5	5.652	311,7	2,21	2,51	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	2.145	108,9	4.549	83,4	2,12	2,41	14,4	6,1	17,8	7,7
Estatukoak	1.947	97,3	4.120	75,3	2,12	2,38	-	-	-	-
Atzeritarrak	198	395,0	429	230,0	2,17	3,25	-	-	-	-
BIZKAIA	4.166	97,4	11.637	132,9	2,79	2,37	28,6	15,3	32,5	15,9
Estatukoak	3.402	73,9	10.188	113,1	2,99	2,44	-	-	-	-
Atzeritarrak	764	396,1	1.449	570,8	1,90	1,40	-	-	-	-
GIPUZKOA	9.088	107,3	24.135	94,1	2,66	2,84	38,3	16,8	43,0	17,3
Estatukoak	7.498	86,0	20.361	78,5	2,72	2,83	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.590	350,4	3.774	267,5	2,37	2,91	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landetxeetako sarreren % 83,4ren eta ostatu-gauen % 86,0ren kasuan, jatorria Estatukoa izan da; urte artean, % 84,2ko eta % 87,0ko igoerak izan dira, hurrenez hurren. Atzeritarren kasuan, berriz, aurreko urteko iraileko kopurua halako hiru izan badira ere, sarreren % 16,6 eta ostatu-gauen % 14,0 baino ez dira izan.

Lurralde historikoaren arabera, sarreretan, urte arteko igoerak % 108,9koak izan dira Araban, % 107,3koak Gipuzkoan eta % 97,4koak Bizkaian. Ostatu-gauak direla eta, gorakadak Bizkaian % 132,9koak izan dira, Gipuzkoan % 94,1ekoak eta, azkenik, Araban, % 83,4koak.

Euskal AEko batez besteko egonaldia establezimendu mota horretan 2,62 egunekoa izan da, 2020ko irailean izan zen 2,65 eguneko antzeko balioa.

Okupazio-mailek, bai plazen arabera bai logelen arabera, urte arteko ehuneko 13,9 eta 14,8 puntuko gorakadak izan dituzte, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoak direla eta, 2021eko irailean, sarrerek eta ostatu-gauak honako balio hauek izan dituzte: 9.266 eta 39.161, hurrenez hurren. Aurreko irailarekin alderatuta, sarreren gorakada % 108,1koa izan da eta ostatu-gauena, % 98,7koa.

Sarrerek, gaudiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko iraila

	Sarrerek		Gaudiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazaka		apartamentuka	
	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	m/m-12 (%)	2021/09	2020/09	2021/09	p.p.*	2021/09	p.p.*
EUSKAL AE	9.266	108,1	39.161	98,7	4,23	4,43	34,8	12,8	65,3	15,8
Estatukoak	7.169	83,5	28.474	72,3	3,97	4,23	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.097	285,2	10.688	235,7	5,10	5,85	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	865	42,0	6.869	15,7	7,94	9,74	24,4	3,1	62,4	7,3
Estatukoak	773	34,2	5.253	0,9	6,80	9,04	-	-	-	-
Atzeritarrak	92	176,7	1.616	121,5	17,49	21,85	-	-	-	-
BIZKAIA	5.417	147,2	13.726	95,0	2,53	3,21	32,5	12,8	52,0	12,2
Estatukoak	4.212	112,3	10.556	78,0	2,51	2,99	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.206	480,8	3.170	185,2	2,63	5,35	-	-	-	-
GIPUZKOA	2.983	80,7	18.566	175,8	6,22	4,08	44,3	18,1	74,7	18,7
Estatukoak	2.184	62,1	12.665	135,0	5,80	4,00	-	-	-	-
Atzeritarrak	799	163,4	5.902	339,6	7,38	4,42	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urtearekiko ehuneko-puntu aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Estatuko jatorria duten sarrerek, Euskal AEn, nagusiak izaten jarraitzen dute; sarrera guztien % 77,4. Estatuko jatorriko ostatu-gauak, bestalde, ostatu-gau guztien % 72,7 dira. Bi aldagai horiek balio oso positiboak erakusten dituzte 2020ko irailaren aldean, % 83,5 eta % 72,3 handiagoak, hurrenez hurren. Atzeritarren sarrerek eta ostatu-gauak, nahiz eta susperraldi handiagoa izan duten, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera eta ostatu-gau guztien % 22,6 eta % 27,3 dira, hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia 4,23 egunekoa izan da 2021eko irailean, 2020ko irailekoa baino baxuagoa (4,43 egun). Lurralde historikoaren mailan, urte arteko aldeek balio desberdinak izan dituzte. Nabarmentzekoa da Arabako batez besteko 7,94 eguneko egonaldia, beste muturrean Bizkaikoa egonik, 2,53 egunekoa. Gipuzkoak, azkenik, 6,22 eguneko egonaldia izan du.

Euskal AEn mailan apartamentuko okupazio-maila % 65,3koa izan da; alegia, ehuneko 15,8 puntuko gorakada egon da, 2020ko irailarekin alderatuta.

2021eko udako balantzea (uztaila, abuztua, iraila)

Landetxeetan, Euskal AEn mailan, 63.642 sarrera izan dira 2021eko udan. 2020ko aldi berarekin alderatuta, % 59,4 egin du gora zifra horrek, eta 2019ko udan –COVID-19aren aurretikoa– erregistratutako zifraren ia parekoa da (% 1,1 baxuagoa).

Ostatu-gauak antzeko portaera izan dute: 2020ko udan izandako kopurua baino % 49,4 handiagoa, baina, halere, 2019ko udan erregistratutakoa baino % 5,0 baxuagoa.

Batez besteko egonaldia mantendu egin da bere horretan Euskal AEn, aztertutako hiru udetako balioetan. 2021eko udan, batez besteko egonaldia 3,00 egunekoa izan da; 2020ko udan, 3,20 egunekoa, eta COVID-19aren aurreko udan, 3,12koa izan zen.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gaudiak eta batez besteko egonaldia. 2021eko uda

	Sarrerak					Gaudiak					Batez besteko egonaldia		
	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019
EUSKAL AE	63.642	39.930	64.318	59,4	-1,1	190.809	127.703	200.948	49,4	-5,0	3,00	3,20	3,12
Estatukoak	55.832	36.107	47.930	54,6	16,5	171.409	117.204	155.763	46,2	10,0	3,07	3,25	3,25
Atzeritarrak	7.810	3.823	16.388	104,3	-52,3	19.400	10.499	45.185	84,8	-57,1	2,48	2,75	2,76
ARABA/ÁLAVA	10.659	6.350	10.969	67,9	-2,8	25.842	18.501	29.608	39,7	-12,7	2,42	2,91	2,70
Estatukoak	9.735	6.161	8.677	58,0	12,2	23.860	18.069	24.915	32,0	-4,2	2,45	2,93	2,87
Atzeritarrak	924	189	2.292	388,9	-59,7	1.982	432	4.693	358,8	-57,8	2,15	2,29	2,05
BIZKAIA	18.721	11.135	21.360	68,1	-12,4	56.620	36.948	63.792	53,2	-11,2	3,02	3,32	2,99
Estatukoak	16.392	10.219	15.543	60,4	5,5	50.534	34.771	48.172	45,3	4,9	3,08	3,40	3,10
Atzeritarrak	2.329	916	5.817	154,3	-60,0	6.086	2.177	15.620	179,6	-61,0	2,61	2,38	2,69
GIPUZKOA	34.262	22.445	31.989	52,6	7,1	108.347	72.254	107.548	50,0	0,7	3,16	3,22	3,36
Estatukoak	29.705	19.727	23.710	50,6	25,3	97.015	64.364	82.676	50,7	17,3	3,27	3,26	3,49
Atzeritarrak	4.557	2.718	8.279	67,7	-45,0	11.332	7.890	24.872	43,6	-54,4	2,49	2,90	3,00

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Apartamentu turistikoen kasuan, 2021eko udako balantzea Euskal AE osorako honako balio hauekin itxi zen: sarreretan % 58,9ko gorakada eta ostatu-gauetan % 60,3koa, 2020ko datuekin alderatuta. Hala, 2019ko udako balioak baino handiagoak izan dira; izan ere, 2021ean, sarrera-kopurua 2019koa baino % 11,7 handiagoa izan da, eta ostatu-gauen kopurua, % 16,8 handiagoa.

Batez besteko egonaldia, aurtengo udan, 3,84 egunekoa izan da, 2020ko udakoa baino handiagoa –orduan, 3,80 egunekoa izan zen–, eta 2019koa baino handiagoa –3,67 egunekoa izan zen–.

Euskal AEko apartamentu turistiko sarrerak, gaudiak eta batez besteko egonaldia. 2021eko uda

	Sarrerak					Gaudiak					Batez besteko egonaldia		
	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019	2021/2020 (%)	2021/2019 (%)	2021	2020	2019
EUSKAL AE	34.473	21.698	30.849	58,9	11,7	132.290	82.536	113.278	60,3	16,8	3,84	3,80	3,67
Estatukoak	26.775	17.673	18.868	51,5	41,9	102.920	66.492	73.679	54,8	39,7	3,84	3,76	3,90
Atzeritarrak	7.700	4.024	11.981	91,4	-35,7	29.373	16.044	39.598	83,1	-25,8	3,81	3,99	3,31
ARABA/ÁLAVA	3.436	2.997	3.746	14,6	-8,3	24.015	19.850	25.559	21,0	-6,0	6,99	6,62	6,82
Estatukoak	3.004	2.698	2.935	11,3	2,4	20.024	17.129	19.790	16,9	1,2	6,67	6,35	6,74
Atzeritarrak	431	299	810	44,1	-46,8	3.990	2.723	5.769	46,5	-30,8	9,26	9,11	7,12
BIZKAIA	19.496	10.633	15.510	83,4	25,7	53.505	31.917	44.129	67,6	21,2	2,74	3,00	2,85
Estatukoak	15.071	8.826	9.623	70,8	56,6	42.277	26.537	28.099	59,3	50,5	2,81	3,01	2,92
Atzeritarrak	4.426	1.808	5.887	144,8	-24,8	11.229	5.379	16.030	108,8	-30,0	2,54	2,98	2,72
GIPUZKOA	11.540	8.066	11.593	43,1	-0,5	54.771	30.769	43.590	78,0	25,7	4,75	3,81	3,76
Estatukoak	8.699	6.150	6.310	41,4	37,9	40.618	22.826	25.790	77,9	57,5	4,67	3,71	4,09
Atzeritarrak	2.841	1.916	5.283	48,3	-46,2	14.154	7.943	17.800	78,2	-20,5	4,98	4,15	3,37

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharra

Landetxeen ETHIaren erantzun-tasa % **94,2**koa izan da, eta apartamentu turistikoena, % **84,2**koa, irailean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62